





BARRUTIK IRAULI indarkeria matxisten aurrean jarduteko REAS Euskadiren protokoloa da. Erakundeak eraldatzeko gure prozesu feminista **BIZIGARRI**ren ekintzen barruan kokatzen da.

Zertarako?



Diskriminazio-jazarpenari eta sexu-indarkeriei modu integralean heltzeko esparru bat izateko.



Sexismoa, sexuan eta generoan oinarritutako diskriminazioak, eta indarkeria matxista eta sexualak desagerrarazteko bidean aurrera egiteko.




Lan-ingurunean sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokolo bat izateko legezko betebeharrari erantzuteko.

Zer eskaintzen dizu?



Indarkeria matxistei buruzko zabalkunde, prebentzio, sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak.



Diskriminazio-, jazarpen- eta indarkeria-jokabideen aurrean jarduteko prozedura bat. Bitarteko hauek ditu:

- Aholkularitza konfidentziala, biktimak babesteko eta defendatzeko.
- Emakumezko adituen kanpo-batzorde bat, kasu larriak ikertzeaz arduratzen dena.



Erreparazio-neurriak.

Zer eskatzen dizu?

1



Konpromiso-agiria sinatzeko eta erreferentziazko pertsona bat izendatzeko.

2




Prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzetan parte hartzeko.

3



Prozedura aktibatzearen ondoriozko kautelazko neurriak eta azken neurriak hartzeko.

4



Ikerketa Batzordea finantzatzen eta/edo biktima erreparatzeko neurriak hartzen laguntzeko, baldin eta zure erakundeko norbait zuzenean inplikaturik badago.

Nola egin dezaket bat?

Sinatu atxikitzeko konpromisoa eta bidali reaseuskadi@reaseuskadi.eus helbidera, zure erakundean protokolo horretarako dagoen erreferentziazko pertsonaren izenarekin eta harremanetarako datuekin batera.